



Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zuzeneko Zergen Kudeaketa Zerbitzuari.

GAIA: PFEZaren autolikidazioa –109 eredu– zuzentzeko eta ondorioztatzen den itzulketa egiteko eskaera.

Ekitaldiak:

2014

2015

2016

2017

.....jaun/andrea, NAN zenbakiduna,
.....n bizi naizen hau, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean agertzen
naiz egoki den eran honako hau

ADIERAZTEKO:

Goian adierazitako ekitaldietan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioak aurkeztu nituela -109 eredu-.

Autolikidazio horiek egin zirenean, amatasun prestazio gisa egotzi zirela Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaletik (INSS) jaso nituen kopuruak.

INSStik jasotzen den amatasun prestazioa salbuetsita dagoela zerga honetan, hala ezartzen baitu 9. artikuluko 12. apartatuan urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak.

Hori dela-eta, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 116.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta urriaren 15eko 73/1991 Foru Dekretuak, zerga izaerako okerreko diru sarrerren itzulketa egiteko prozedura arautzen duenak, bigarren xedapen gehigarrian jasotakoarekin bat etorritz,

Eskatzen dut goian adierazitako autolikidazioak zuzendu daitezela eta behar den diru itzulketa egin dadila.

.....(e)an, 2018koaren(e)an

Sinatua: